

# KULTUR PROGRAMAZIOA

uztaila 2020

Kultura VILLABONA

AMASA-VILLABONA Villabonako Udala

BERPIZTU Amasa-Villabona

# AURKIBIDEA ÍNDICE

**uztailak 2** / 19:00 / kale antzerkia (haurrak)
***sardiña bakalau*** / arroako plaza / ikastola (eguraldi txarra) ...................................... 4

**uztailak 3** / 22:30 / zinema kalean (16+)
***errementari*** (euskaraz) / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra) ....................... 5

**uztailak 9** / 22:00 / antzerkia (helduak)
***sex o no sex*** / gurea antzokia ..................................................................................... 6

**uztailak 10** / 22:30 / zinema kalean (12+)
***ha nacido una estrella*** / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra) ...................... 7

**uztailak 16** / 20:00 / musika
***howdy*** / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra) ................................................ 8

**uztailak 17** / 22:30 / kale antzerkia (helduak)
***psike*** / erreboteko plaza / bearzana frontoia (eguraldi txarra) .................................. 9

**uztailak 23** / 20:00 / musika
***habi*** / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra) ................................................. 10

**uztailak 24** / 19:00 / zinema kalean (haurrak)
***ballerina*** (euskaraz) / arroako plaza / ikastola (eguraldi txarra) ............................... 11

**uztailak 25** / 12:00 / kale antzerkia (haurrak)
***kontu kantari 2, mendian ibiltari*** / ikastola ............................................................. 12

**uztailak 25** / 19:30 / musika
***amak*** / arroako plaza / ikastola (eguraldi txarra) ...................................................... 12

**uztailak 25** / 00:00 / kale antzerkia (helduak)
***tonbola*** / erreboteko plaza / bearzana frontoia (eguraldi txarra) ............................. 13

**uztailak 26** / 19:00 / zinema kalean (haurrak)
***luis eta estralurtarrak*** (euskaraz) / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra) .. 14

**uztailak 31** / 22:30 / zinema kalean (16+)
***lo dejo cuando quiera*** / erreboteko plaza / ikastola (eguraldi txarra) ..................... 15

**Jai Batzordeak aurten Santio jairik ez izatea erabaki du, egoera honetan oso zaila baita jende pilaketek sortzen duten arriskutik aldentzea. Hala ere, herritarrak kultura gosez izango direla iruditzen zaigu, eta horregatik udako kultur programazio duin eta askotariko bat prestatu dugu, ustez, gehien-gehiena kalean izango dena eta Santio Egunean pixka bat indartuko dena. Espero dugu gozatzea eta egoerak eskatzen duen arduraz jokatzea.**

La Comisión de Fiestas ha decidido que este año no haya fiestas de Santiago, ya que en esta situación se hace muy difícil evitar el peligro que generan las aglomeraciones. Sin embargo, es evidente que la ciudadanía está hambrienta de cultura, y por eso hemos preparado lo que a nuestro entender es una programación cultural de verano digna y variada, que se desarrollará casi en su totalidad en la calle y que se reforzará un poco el día de Santiago. Esperamos que disfrutéis y que todos actuemos con la responsabilidad que requiere la situación.

**Ikuskizunak izango diren esparru guztiak hesituak izango dira, eta esparruaren barruan izango diren aulkietan eserita bakarrik ikusi ahal izango dira.**
Todos los recintos donde tendrán lugar los espectáculos estarán vallados, y sólo se podrán ver sentados en las sillas colocadas dentro del recinto.

**Sartzean eta ateratzean maskara jantzita eraman beharko da. Behin aulkietan eserita, kendu ahal izango da.**
Al entrar y al salir habrá que llevar la mascarilla puesta. Una vez se siente el público en las sillas, será posible quitársela.

**Aulki-multzoak jarriko dira, elkarrekin bizi diren pertsonak, ahal dela, elkarrekin eseri ahal izateko.**
Se colocarán grupos de sillas para que las personas que conviven puedan sentarse juntas, en la medida de lo posible.

**Segurtasuna ezinbestekoa da. Jarraitu guri laguntzeko dauden langileen argibideak, eta arduratsua izan.**
Sigue las instrucciones del personal que estará para ayudarnos, y sé responsable.

**uztailak 2**, osteguna / 19:00

KALE ANTZERKIA (haurrak)

ARROAKO PLAZA / IKASTOLA

## SARDIÑA BAKALAU

ANITA MARAVILLAS

Titiriteroak: Miren Larrea, Valentina Raposo eta Ion Chavez
Musikalariak / Interpreteak: David Rodriguez, Eire Larrea eta Iñaki Etxarri

SARDINA BAKALAUk portuan lan egiten zuten edo duten emakumeak, saregileak, arrain-saltzaileak,… ezagutzera gonbidatzen gaitu. Konpainiak tailerrean hiru pertsonaia eraiki ditu, agian ahaztuta dauden lanbide batzuk erakusteko. Ezagutu eta ospatzeko asmoz. Trikitiaren eta panderoaren musikarekin batera, kaleak eta bihotzak dantzatu eta alaituko dituzte. Adineko emakume hauek umore ona eta dantza adin guztietarako egokiak direla gogorarazten digute.



ZINEMA KALEAN (+16)

ERREBOTEKO PLAZA / IKASTOLA

# ERREMENTARI

(Euskaraz)

Zuzendaria: Paul Urkijo
Aktoreak: Kandido Uranga, Eneko Sagardoy, Itziar Ituño

10 urte pasatu dira 1833ko lehenengo Gerra Karlistatik. Arabako herrixka batean, Alfredo izeneko Diputazioko komisario bat gertakari bat ikertzen ari da, eta arrastoek basoaren sakonean dagoen errementeria beldurgarri batera daramate. Bertan, errementari arriskutsu eta bakarti bat bizi da: Patxi. Inguruko herritarrek hari buruzko istorio ilunak kontatzen dituzte, lapurreta, hilketa eta demonioekin egindako tratuei buruzkoak. Egun batean, Usue izeneko neskatxa batek errementeria misteriotsuan sartzea lortzen du, eta agerian uzten du Patxi Errementariak ezkutatzen duen egia izugarria.



ANTZERKIA (helduak)

GUREA ANTZOKIA

# SEX O NO SEX

OIHULARI KLOWN

Intérprete: Virginia Imaz

Pauxa es una payasa que se pregunta sobre la vida, la muerte y el sexo. Tomando a las personas del público como cómplices y testigos de sus delirantes reflexiones, nos comparte sus diferentes iniciaciones en temas sexuales.

En este espectáculo, Virginia Imaz nos presenta en clave de humor temas como la regla, la masturbación, la complicada relación con el propio cuerpo, el primer beso, el coito, el orgasmo… y, en general, la asignatura pendiente del placer sin culpa. Se trata de una propuesta lúdica que toma como referente nuestros hábitos – o la falta de ellos – en relación al sexo, y como viene siendo habitual en todas las creaciones de Oihulari Klown, lo hace desde una perspectiva de género.



ZINEMA KALEAN (+12)

ERREBOTEKO PLAZA / IKASTOLA

# HA NACIDO UNA ESTRELLA

Dirección: Bradley Cooper
Reparto: Bradley Cooper, Lady Gaga

‘Ha nacido una estrella’ relata la historia de Ally, que interpretará Lady Gaga, una joven actriz y cantante con talento que llega a la Hollywood dispuesta a triunfar y a cumplir sus sueños. Una vez instalada en la ciudad de la fama, conocerá a Jackson Maine, encarnado por Bradley Cooper, un actor de renombre que tuvo su momento de gloria en el pasado. Sin embargo, últimamente, su carrera no está pasando por su mejor época. Alcohólico y arruinado, encontrará en Ally una razón para seguir adelante y le ayudará en su búsqueda del éxito.

Se trata del remake de la película del mismo nombre de 1937 dirigida por William Wellman y protagonizada por Janet Gaynor y Frederic March.



**uztailak 16**, osteguna / 20:00

MUSIKA

ERREBOTEKO PLAZA / IKASTOLA

## HOWDY

Jon Arzelus (kontrabaxua)
Urbil Artola (dobroa)
Jose Mari Pulido (banjoa)
Julen Maestro (trikitixa)
Gorka Arranz (gitarra eta ahots nagusia)

Folk eta herri musika zaleak izanik, bereziki bluegrass estiloan oinarritzen da Howdy taldea, 2012 urte hasieran Donostian sortu zena. Lehenbiziko urteak hainbat musikarirekin jotzeko eta herri musikaren ezagutzan murgiltzeko baliatu zuten.  Hainbat taldekideren joan-etorriarekin batera, taldearen oinarria, nortasuna eta estiloa finkatuz joan zen pixkanaka. Azken urteetan sortu eta moldatu dituzten 12 abesti eta doinu grabatu zituzten iaz Oiartzungo Lezoti Estudioan, eta 2020ko urtarrilean argitaratu zuten lehendabiziko diskoa.



**uztailak 17**, ostirala / 22:30

KALE ANTZERKIA (helduak)

ERREBOTEKO PLAZA / BEARZANA FRONTOIA

# PSIKE

MARKELIÑE
(Testurik gabe)

Zuzendaria: Markeliñe
Aktoreak: Fernando Barado, Itziar Fragua, Gaizka Chamizo, Nerea Martínez, Jon Koldo Vázquez

**Keinu bidezko interpretazioak, plataforma mugikorren erabilerak, dantzak, txotxongilo erraldoiek eta suaren magiak, besteak beste, bihurtzen dute *Psike* ikuskizun dinamiko, bizigarri, komiko eta hunkigarri.**

Unas risas que proceden del interior de la “gran cabeza” parecen burlarse de él. En el intento de acallar esas voces provocadoras, el artista se encontrará con los fantasmas de su conciencia. Al final el artista consigue su aplauso. Porque reconozcámoslo, eso es lo que nos mueve: la imperiosa necesidad de ser aceptados por los demás.



**uztailak 23**, osteguna / 20:00

MUSIKA

ERREBOTEKO PLAZA / IKASTOLA

# HABI

Habi Villabonako bi gaztek, Jon Ander Artola eta Yerai Gascon, osaturiko power duo bat da. 2018 elkartu ziren, eta sei hilabeteko lan prozesuaren ondoren, 2019an *Loratu* izeneko lehen diskoa argitaratu zuten; autoekoiztua eta Elkar estudioetan grabatua, Víctor Sánchez soinu ingeniariarekin. Orain disko berria grabatu berri dute, eta aurrerapen moduan, kontzertu honetan kanta berri batzuk joko dituzte.



## ZINEMA KALEAN (haurrak)

ARROAKO PLAZA / IKASTOLA

# BALLERINA

(Euskaraz)

1879. urtea da. Gurasoak galdu ostean, Felicia umezurztegi batean bizi da, Bretainian. Bere pasioa dantza da, eta dantzari profesionala izatea du amets. Hori lortzeko, Victor adiskidearen laguntzaz ihes egin eta Parisera bidaiatuko du. Han beste pertsona baten itxurak egingo ditu Grand Opera Houseko ikasle gisa sartzeko, eta, horrela, nahi duen bizitza izateko.



## uztailak 25, larunbata / 12:00

**KALE ANTZERKIA (haurrak)**

**IKASTOLA**

# KONTU KANTARI 2, MENDIAN IBILTARI

LA ENANA NARANJA

Nanu, Granu eta Kanuto txango berri bat egiteko prestatzen ari dira. Arratsalde honetan, mendi tontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat eta…TXIST! Baxuago abestu!! Haurtxo polita sehaskan dago zapi zuritan txit bero…

*Kontukantari 2, Mendian ibilitari* ikuskizunaren bidez, denok oroimenean ditugun hamar abesti berrikusi eta haurrei erakutsiko diegu.



## uztailak 25, larunbata / 19:30

**MUSIKA**

**ARROAKO PLAZA / IKASTOLA**

# AMAK



Amak amak dira eta lau. Lau trikiti edo lau pandero eta lau ahots. Lau izenen lehen letrarekin osatutako taldea eta, gainera, lauak amak dira. Amak ikuskizun biribila eskainiko duen taldea da: Alaitz Telletxea (Alaitz eta Maider), Maixa Lizarribar (Maixa ta Ixiar), Amaia Oreja (M-n Ezten) eta Kristina Solano (M-n Ezten). Euskal Herriko folk musikaren ertzak betiko moldeetatik atera eta proposamena gorpuztu nahi dute, ikuskizun bitxia eskaintzeko asmoz.

KALE ANTZERKIA (helduak)

ERREBOTEKO PLAZA / BEARZANA FRONTOIA

# TONBOLA

HIKA TEATROA
(Euskaraz)

Zuzendaritza: Agurtzane Intxaurraga
Aktoreak: Eneko Gil, Miren Gojenola, Iñigo Aranburu / Jon Ander Alonso, Sandra Fdez. Agirre / Maryse Urruty

*Tonbola* ikuskizunak *kaleko kabareta* eraikiko du. Egoera absurdoetan oinarrituko du bere umorea eta munduan zehar mugek banatuta edota muga baten baitan bizi den jendearen errealitateari erreparatuko dio. Irabazlearen pozak dantzarekin eta zuzeneko kantu eta musikarekin hornituko ditu eta galtzaileen minak gorputzetik eraiki.

*Tonbola* herrira iritsi da eta harekin batera datoz tonbolaria, haren emaztea eta haien zerbitzariak. -Iritsi dira “Ilusio sortzaileak!”



**uztailak 26**, igandea / 19:00

## ZINEMA KALEAN (haurrak)

ARROAKO PLAZA / IKASTOLA

# LUIS ETA ESTRALURTARRAK

(Euskaraz)

Luis 12 urteko mutil bat da. Denbora asko pasatzen du bakarrik, ez du lagunik eta bere aitak, Armin Sonntag ufologoak, ez du sekula harentzako denborarik izaten. Espazioan bizitza adimenduna badela frogatzearekin itsututa, teleskopiotik begira ematen ditu gauak eta lotan egunak. Barnetegiko zuzendariak uste du Luisek zentro batean bizi beharko lukeela etxean horrenbeste ordu bakarrik egin beharrean. Egun batean, hiru estralurtar xelebre bere etxe-atarian eroriko dira teledendan ikusi duten “Nubbi- Dubbi” izeneko masaje-alfonbraren bila. Luis pozik da bere lagun berriekin eta aitarengandik ezkutatu nahi ditu, aita konbentzituta dagoelako martetarrak arriskutsuak direla eta azaldu bezain laster neutralizatu eta izoztu egin behar direla.



ZINEMA KALEAN (+16)

ERREBOTEKO PLAZA / IKASTOLA

# LO DEJO CUANDO QUIERA

Dirección: Carlos Therón
Reparto: David Verdaguer, Ernesto Sevilla, Carlos Santos, Ernesto Alterio, Cristina Castaño, Miren Ibarguren, Amaia Salamanca

Amigos desde la facultad y sobradamente preparados, Pedro, Arturo y Eligio son tres profesores universitarios a los que la crisis ha dejado sin trabajo. Cansados y sin blanca, encuentran accidentalmente la solución a sus problemas en el proyecto de investigación en el que Pedro lleva años trabajando: un complejo vitamínico que ofrece, para su sorpresa, desfase a tope sin efectos secundarios. Los tres profesores, con el apoyo de Anabel, una abogada reconvertida en empleada de gasolinera, y de Jota, una alumna más interesada en la juerga que en los estudios, se lanzarán al mundo de la noche y de los negocios turbios para comercializar la mercancía. Algo para lo que no parecen estar aún tan sobradamente preparados.






Kultura VILLABONA

AMASA-VILLABONA Villabonako Udala

BERPIZTU Amasa-Villabona